

**HAUTAKETA PROZESUA: OHIKO PROZESUA. 2022KO URRIAREN 20KO UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEAIALDIA. (2022ko ABENDUAREN 22ko EHAA)**

**SARRERA MOTA: OROKORRA**

**DEIALDI ESPEZIFIKOA: GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALA - EKONOMIA (Ohiko prozesua)**

**OPOSIZIO FASEAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK ARGITARATZEKO EPAIMAHAIAREN ERABAKIA.**

---

Deialdiaren zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoaren 4. puntuan jasotakoarekin bat oposizio fasean ariketak zuzendu eta gero, aipatutako hautaketa prozesuaren epaimahaiak honako hau iragarri du:

**LEHENENGOA.** – Oposizio-faseko gaitutuen behin-behineko zerrenda egitea, dagozkien kalifikazioen eta puntuazio-hurrenkeraren arabera.

**BIGARRENA.** – Oposizio-fasea gaitutu dutenen behin-behineko zerrendak puntuazio-hurrenkeraren arabera, EHUko lan-eskaintzen atarian (<https://www.ehu.eus/eu/web/azp/ohioko-prozesua-funtzionarioak>) argitaratzea, hautagaiek kontsulta ditzaten.

**HIRUGARRENA.** – Hamar lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezen, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Halaber, epe horren barruan, gaitututako izangaiek lehiaketa-faseko merezimendu konputagarriak alegatu eta egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio. Oposizio-aldiko behin-behineko emaitzei erreklamazioen bat egiten dietenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dituzte horiekin batera.

**LAUGARRENA.** - Dokumentazio hori horretarako gaitutako EHUko egoitza elektronikoen bidez aurkeztu behar izango da. (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registroelectronico>) [AZPkoen 2022ko LEPa. Dokumentazioa aurkeztea](#) prozedura aukeratuz. Horretarako, hauetako ziurtagirietako bat erabili beharko da: UPV/EHUko langileen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre.

Esteka honetan ikus daiteke non dauden eta zein ordutegi duten bulegoak: [http://www.ehu.es/oficinas\\_registro.html](http://www.ehu.es/oficinas_registro.html)

Alegazio-formularioa eta, hala badagokio, merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa posta-bulegoetan aurkezten dutenek UPV/EHUko gerenteari zuzendu beharko diote eskaria eta 10.2 oinarrian adierazitako helbidera bidali, eta aurkeztu beharko dute posta zerbitzuak arautzen dituen errege dekretuan zehazten den moduan (1829/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 31. art.).

Leioan,

Epaimahaiko idazkaria